

Donostiarron ikusmiran

Azken bultzada laugarren zubiari

Laugarren zubiaren eraikitze lanak aurrera doaz. Aste honetan porlana bota dute eta, beraz, azken lanak besterik ez dira falta. Arduradunek diotenez, maiatzaren hasieran zabalduko da Urumeako zubi berria.

Joan den astelehenean, gau eta egunez, porlana botatzen aritu ziren laugarren zubiko langileak. Guztira, 1.400 tona porlan jarri zuten. Lan honek, gainera, zubiaren bi muturren eta erdialdearen arteko altura tartea 80 bat zentimetro gutxitzea ekarri zuen, Carlos



Argazkia: Imanol Olegi

Sancho Obra eta Proiektuetako zinegotziak azaldu duenez. Alde honek hainbat buruhauste eta arazo eragin die eraikitze lanetako arduradunei.

Carlos Sanchok adierazitakoaren arabera, eraikitze lanak azkartu egin dira eta, beraz, zubia aurreikusitako epean zabalduko da. Hala ere, gogoratzekoa da zubia 1999ko irailean zabaltzekoa zela hasieran, San Sebastian egunera arte atzeratu zela eta honen ondoren beste bi atzerapen etorri zirela.

Arrazakeriaren aurkako martxa

datorren igandean, hilak 19, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako martxa deitu dute hainbat erakundek, Trintxerpe eta Donostia bitartean. SOS Arrazakeria, Medicus Mundi, Komite Internazionalistak edota Mugarik Gabe antolatzaileen artean daude. Ekimenarekin etorkinek bertakoen eskubide berak izan ditzaten eskatu nahi dute, besteak beste. Arrazakeriaren aurkako martxa Trintxerpeko Karmengo Eliza aurretik 12.00etan abintu eta Bulebarreko kioskoan amaituko da 13.00etan.

Desmilitarizazio Astea Egian

giako Intsumituen Taldeak Desmilitarizazio Hirugarren Astea egingo du martxoaren 20tik 24ra bitartean. Ekitaldi guztiak kultur etxean izango dira, 19.30etan. Hilaren 20an, astelehena, militarismoaren aurkako kartel erakusketa zabalduko da. Asteartean "Colectividades y okupacion rural" liburua aurkeztu eta solasaldia egingo da. Asteazkenean, Inaki Egañak "Guda Zibila Euskal Herrian eta Gipuzkoan" izenburuko hitzaldia eskainiko du. Azkenik, ostegunean Kakitzat eta Autodeterminazioaren Biltzarrak Euskal Nazionalitate kanpainaren aurkezpena egingo dute.

DATUA

2000

ZUHAITZ

Udalak 1.000 arbola eta 8.000 zuhaiska landatuko ditu udaberrian, Alberto Rodriguez Hiri Mantenimenduko zinegotziak jakinarazi duenez. Zurriolako eta Kontxako hainbat tamarindo kendu eta berriak jarriko dira, 200 bat, guztira. Alberto Rodriguezek esandakoaren arabera, iaz 700 zuhaitz landatu ziren Donostian.

Argi berdea Orixe eta Morlanseko eskolen lekualdatzei

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak baiezkua eman diote Orixe eta Morlanseko eskolen lekualdatzei. Orixe eta Morlanseko eskolak 50 milioi pezeta bideratuko dituzte. Bestalde, Orixe eta Morlanseko eskolak 500 etxebizitza

